

**DIRU-BILKETAKO ADMINISTRARI TEKNIKARIA HAUTATZEKO PROZESUA**

**BASAURIKO UDALA**

**2. ARIKETA - A EREDUA**

1. BETA SL sozietateak banaketak egiteko erabilitako kamioi bat erosi zuen 2023ko irailaren 1ean eta, enpresa-irizpide bati jarraikiz, 2024ko azaroaren 3an kamioiaren aldi baterako baja izapidetu zuen. Izapidegile zaren aldetik, GAUR iritsi zaizu Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan egindako likidazioak berrikusteko mandatua. Aukeratu erantzun zuzena:

|    | EKITALDIA                                      |                                                |                   |
|----|------------------------------------------------|------------------------------------------------|-------------------|
|    | 2023                                           | 2024                                           | 2025              |
| a) | Likidaziorik ez                                | Likidaziorik ez                                | Likidaziorik ez   |
| b) | Likidazioaldia: 09. hilabetetik 12. hilabetera | Likidaziorik ez                                | Likidaziorik ez   |
| c) | Likidazioaldia: 09. hilabetetik 12. hilabetera | Likidazioaldia: 09. hilabetetik 12. hilabetera | Urteko likidazioa |
| d) | Likidaziorik ez                                | Urteko likidazioa                              | Urteko likidazioa |

2. Kudeaketarako sistema informatikoak ohartarazten dizu kobrantza bat bikoiztuta duzula Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko zergan egindako likidazio batengatik, zenbatekoa 452,13 € izanik. Zein izango litzateke izapide zuzena?

- a) Kobrantzari uko egitea
- b) Sarrera bidegabeak itzultzeko espedientea izapidetzea
- c) Sarrera bidegabeak itzultzeko espedientea izapidetzea, zorrak konpentsatuta
- d) Ordaintzaileari jakinaraztea 2 aldiz ordaindu duela

3. Oinordetza edo jaraunspen bidez eskuratutako higiezin baten 2 titularkideek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiriak bereizita jaulki ditzala eskatu diote Udalari. Eskaera onartu dute, eta OHZren ordainagiriak titular bakoitzaren titulartasunaren proportzioan jaulki dituzte.

2. titularren aurtengo ordainagiriaren zenbatekoa 123,36 € da, eta borondatez ordaintzeko epea amaitu da. Espedientea izapidetzen ari zara eta, beraz, honako hau egin behar duzu:

- a. Ordaindu duen titularrari soilik eskatzea ordain dezan, administrazio-egintza deribatuta kobraezintasun-adierazpena egin ondoren
- b. Bere zatia ordaindu duen titularrari eskatzea ordaintzeke dagoena ordain dezan, edo ordaindu ez duen titularrari eskatu ahal izango zaio, premiamendu-prozeduraren bitartez
- c. Bere zatia ordaindu duen titularrari soilik eskatzea ordain dezan, premiamendu-probidentzia jakinarazi ondoren ordainketak egin gabe jarraituz gero

- d. Bere zatia ordaindu duen titularrari ezin izango zaio eskatu, inolaz ere, ordain dezan

**4. Arretxabala jaunak bere etxebizitza birgaitzeko obren aurretiazko adierazpena aurkeztu zuen, eta, horren ondorioz, Udalak Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren likidazioa onetsi zuen 2024ko uztailaren 24an, likidazioaren zenbatekoa 1.723.12 € izanik.**

Likidazio hori 2024ko abuztuaren 16an jakinarazi zen eta, ordaintzeko epea amaituta ordaindu gabe zegoenez, Zerga-bilketa Sailak premiamendu-probidentzia eman zuen 2024/10/18an. Posta bidez bidali zen probidentzia, eta hartu-agirian honako hau aipatzen da: "banaketan absente".

2024/12/28an, ordainarazpen-espedita batean sartu zen zorra, eta kreditu-erakunde batean eskubideak edo ondasunak enbargatzeko eginbidea eman zen; horren ondorioz, premiamendupeko zorraren guztizko zenbatekoa enbargatu da.

**Zenbateko epea zuen Arretxabala jaunak likidazioa borondatezko aldian ordaintzeko?**

- a. Hilabete 1, jakinarazpena jasotzen denetik hasita
- b. Hilabete 1, jakinarazpenaren biharamunetik hasita
- c. Premiamendu-probidentzia jakinarazi baino hilabete 1 eta aste 1 lehenago
- d. Hilaren 16an jakinarazi zitzaionez, hurrengo hilaren 30era arteko epea du ordaintzeko

**5. Aurreko kasuarekin jarraituko dugu. Arretxabala jaunari igorritako likidazioaren jakinarazpenean zehaztu beharko da aurkaratzeko zer bide dituen, zer organotan aurkeztu behar dituen, eta zer epetan; hain zuzen ere:**

- a. Gora jotzeko errekurtsua, Zerga Kudeaketako Sailean, eta hilabete 1eko epean
- b. Berraztertze errekurtsua, alkateari eta hilabete 1eko epean
- c. Berraztertze errekurtsua, Zerga Kudeaketako Sailean eta hilabete 1eko epean
- d. Aukerako berraztertze errekurtsua, Zerga Kudeaketako Sailean eta hilabete 1eko epean

**6. Aurreko kasuarekin jarraituko dugu; zer errekaratu aplika dakizkioke Arretxabala jaunari ordainarazpen-aldian?**

- a. Ordainarazpen-errekaratu: % 5 eta premiamendu-errekaratu: % 20
- b. Ordainarazpen-errekaratu: % 0,5 lehenengo 3 egunetan eta gero % 5; eta premiamendu-errekaratu: % 20
- c. Ordainarazpen-errekaratu: % 5 eta premiamendu-errekaratu: % 15
- d. Ordainarazpen-errekaratu: % 10 eta premiamendu-errekaratu: % 20

**7. Aurreko kasuarekin jarraituko dugu; egindako enbargo-jarduketa zuzena al da?**

- a. Bai, ordainketa ez delako egin premiamendu-probidentzian adierazitako epean
- b. Bai, ordainarazpen-espedientearen hurrengo fasea delako
- c. Ez, akats bat dagoelako jakinarazpen-prozesuan
- d. Ez

**8. Aurreko kasuarekin jarraituko dugu. Ordainarazpen-espedientea amaitu eta zorra kobratu ondoren, 2025eko ekainaren 16an Arretxabala jaunak beste idazki bat aurkeztu zuen; idazkiaren arabera, etxean azkenean ez zuen obra egin eta, beraz, likidazioa deuseztatzeko eta ordaindutakoa itzultzeko eskaera egin du.**

Idazkia onartuz gero, **nola jokatu behar da?**

- a. Likidazioa BAI deuseztatzen da eta ordaindutakoa BAI itzultzen da, zerga sortu ez denez sarrera bidegabea delako
- b. Likidazioa EZ da deuseztatzen eta ordaindutakoa BAI itzultzen da, zerga sortu ez denez sarrera bidegabea delako
- c. Likidazioa EZ da deuseztatzen eta ordaindutakoa EZ da itzultzen, likidazio irmo eta onartua delako
- d. Likidazioa EZ da deuseztatzen eta ordaindutakoa EZ da itzultzen, ordainarazpen-espedientea amaituta dagoelako

**9-20 GALDEREI DAGOKIEN ENUNTZIATUA**

**PATXI FERNANDEZ** jauna zerga-bilketako bulegora joan da 2024ko urriaren 12an, 2024ko ekitaldiari dagokion Ondasun Higiezinaren Zergaren ordainketa-gutun batekin.

Ordainketa-gutunarekin batera, likidazio bat ere jakinarazi zaio egoitza elektronikoko agerraldi bidez, ziurtagiri digitalaren bitartez sartu zelako 2024ko irailaren 1ean, baina, adierazi duenez, posta elektronikoa ez zuen abisurik jaso.

Era berean, sarrera-erregistroko zigiluan 2024ko urriaren 2ko (urriaren 1a jaieguna izan zen) data duen idazki bat ere aurkeztu du, zeinaren bitartez likidazio horren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu zuen.

Errekurtoa argudio hauetan oinarritzen da:

- Ez da higiezinaren jabea, baina bai, ordea, higiezinaren errentamendu-eskubide baten titularra, 2019ko otsailaren 19an eratutako eskubidea izanik, eta, beraz, ez dagokio likidazio hori ordaintzea.
- Ordainketa-gutuna txarto dago, kalkulua okerra delako.

Espedientearen izapidegile zaren aldetik, eta ordainketa-gutuna aztertu ostean (gutuna ez dago egoera onean), honako datu hauek ikusi dituzu:

| KONTZEPTUA         | ZENBATEKOA |
|--------------------|------------|
| LURZORUAREN BALIOA | 100.000,00 |
| ERAIKINAREN BALIOA | 40.000,00  |
| KARGA-TASA         | % 0,2842   |
| KUOTA OSOA         | 397,88€    |

Gutuna aplikazio informatikoaren bitartez aztertu duzunean, ordainketa-gutun hori ordainduta dagoela egiaztatu duzu.

Fernández jaunak dio berak ez duela ezer ordaindu, eta ez duela inork ordaintzerik nahi; horrenbestez, aurkeztutako errekursoaren erantzunean deusezta dadin eskatu du, eta argudiatu du Administrazioak ez zuela ordainketa onartu behar, berak ez zuenez baimendu.

Halaber, agian bere ezkon-arrebak ordaindu duela adierazi du: Begoña Aresti andreak, eta eskatu dizu Aresti andrearen zorren berri eman diezaiozun, zenbateko baliokidea duen zorren bat ordaindu nahi diolako, hari ezer itzuli behar ez izateko hartara.

Zu zalantzan zaude datuak eman ala ez eman, baina Fernández jauna temati dago, bere datuak eman baitizkiote Aresti andreari OHZren aipatutako zor hori ordain zezan. Gainera, zu nor zaren identifikatzeko eskatu dizu, Aresti andrearen datuak ematen ez badizkiozu erreklamazio bat jartzeko.

**9. Balekoa al da Fernández jaunari egoitza elektronikoko agerraldi bidez egindako jakinarazpena?**

- a) Ez, pertsona fisikoa delako
- b) Bai
- c) Ez
- d) Ez, jakinarazpenak egiteko bide hori ez duelako lehentasunezkoztat jo

**10. Jarritako errekurtsua al da bidezkoa?**

- a) Bai
- b) Ez, aukerako berraztertze-errekurtsua da bidezkoa eta, hala badagokio, administrazioarekiko auzi-errekurtsua gero, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzenean
- c) Ez, berraztertze-errekurtsua da bidezkoa eta, hala badagokio, administrazioarekiko auzi-errekurtsua gero
- d) Ez, administrazioarekiko auzi-errekurtsua da bidezkoa

**11. Gora jotzeko errekurtsua bidezkoa ez bada, administrazioak izapidetu beharko al luke?**

- a) Ez
- b) Ez, errekeritu egin behar zaio, eta bidezko errekurtsua zein den adierazi, errekurtsua jartzeko beste epe bat emanda
- c) Bai, izapidetu egin behar da, errekurtsuaren benetako izaera ondorioztatzen bada
- d) Bai, izapidetu egin behar du

**12. Epearen barruan jarri al da Fernández jaunak aurkeztutako errekurtsua?**

- a) Ez
- b) Bai
- c) Bai, presuntziozko egintza baten aurkakoa delako
- d) Ez, egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu behar duelako

**13. Administrazioak ez badu errekurtsua dagokion epean ebazten, ebazteko betebeharra izaten jarraituko al luke?**

- a) Ez
- b) Bai
- c) Ez, baina Fernández jaunak administrazioarekiko auzibidera jo dezake
- d) Ez, baina Fernández jaunak berrikuspen-errekurtsu berezia aurkez dezake

**14. Errentamendu-eskubide horren titular den aldetik, Fernández jauna izan al daiteke OHZren subjektu pasibo?**

- a) Ez
- b) Bai
- c) Ez, eskubide hori Fernández jaunaren eta gozamendunaren arteko negozio juridikoa delako, eta ez duelako administrazioa lotzen
- d) Ezin da subjektu pasibo izan, baina bai zergapekoa, egin duten negozio juridikoa dela-eta

**15. Errentamendu-eskubide horren titular den aldetik, Fernández jauna izan al daiteke OHZren Katastroko titular?**

- a) Ez
- b) Bai, errentamendu-eskubidean hala jasotzen bada
- c) Ez, eskubide hori Fernández jaunaren eta jabearen arteko negozio juridikoa delako, eta ez duelako administrazioa lotzen
- d) Ezin da Katastroko titular izan, baina bai subjektu pasibo

**16. Likidazioa eta ordainketa-gutuna Fernández jaunaren izenean jaulki behar al ziren?**

- a) Ez
- b) Bai
- c) Bai, baina ez zorraren guztizkoarekin
- d) Bai, eskrituran jasota badago

**17. Zuzena al da likidazioarekin batera bidalitako ordainketa-gutuneko kuota?**

- a) Bai
- b) Ez, kuota zuzena 284,20 € izango litzateke
- c) Ez, kuota zuzena 113,68 € izango litzateke
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira

**18. Eman behar al dizkiozu Fernández jaunari Aresti andrearen zorrari buruzko datuak?**

- a) Ez
- b) Bai
- c) Erreklamazioa aurkeztu arte ez
- d) Bai, horietakoren bat ordaintzen badu

**19. Identifikatu behar al duzu zeure burua?**

- a) Ez
- b) Bai
- c) Bai, erreklamazioa aurkezten duenean
- d) Ez, baina eginbide bat aurkeztu ahal izango duzu erreklamazioan, nor zaren adierazteko.

**20. Demagun jabeak ez duela ordainketa egin; administrazioak onartu behar al zuen hirugarren batek egindako ordainketa, Fernández jaunari jakinarazitako likidazioari dagokionez?**

- a) Ez
- b) Bai
- c) Ez, Fernández jaunak adostasuna berariaz eman ezean
- d) Ez, jabeak adostasuna berariaz eman ezea